



## PROGRAMAREN ARAUTEGIA

### HELBURUAK:

- **UDA-LUDOTEKA 2011**ko helburuak honako hauek dira:
  - \* Plentziako umeen aisialdiaren gozamen aberasgarria.
  - \* Euskararen erabileraren sustapena eta hizkuntzarekiko jarreraren hobekuntza.

### PARTEHARTZAILEAK:

- Plentziako UDA-LUDOTEKA Programa, **1999-2006 urte bitartean jaiotako** umeentzat sortutako ekintza duzue.
- **PLENTZIAN ERROLDATUTAKOAK LEHENTASUNA IZANGO DUTE.**
- Programa osotasunean Euskaraz landuko denez, parte hartu ahal izateko **B eta D ereduetan** jardun behar izango dira ikasleak, edo **Euskararen erabateko menderakuntza** dutenak.

### AURRE- INSKRIPZIOAK:

- Plentziako **UDA-LUDOTEKA 2011** Programan parte hartzeko, **aurre-inskripzioak 2011ko Martxoaren 28tik, Apirilaren 5era** egin beharko dira, biak barne.
- **EZ DA ONARTUKO TELEFONOZ EDOTA EMAILEZ EGINDAKO AURRE INSKRIPZIOARIK.**
- **3 inskribapen mota egongo dira:** Uztaierako, Abuzturako edota bi hilabeterako. Edozein kasutan izen emateak hilabete osorako izango dira.
- **Izen emate hau egiteak ez du suposatzen PLAZA ESKURATU dutenik.**

### PLAZEN ADJUDIKAZIOA:

- Aurre inskripzio epea behin bukatuta, izen emate kopurua eskeinitako plazen kopurua baino handiagoa bada, plazen zozketa burutuko da **Maiatzaren 2an, 18:00etan** Goñi Portalen. Zozketa egunean etorri ezin izateak ez du oztoporik suposatuko plaza lortu ahal izateko.
- Plaza lortu ez dutenek, ITXARON ZERRANDAN sartuko dira. Zerrenda hau zozketa berean burutuko da.
- Kide bat baino gehiagok parte hartuko duten familietan, horietako batek plazarik ez lortzea suposatuko lukeen arazoa kontutan izan dugu, beraz, kideetako batek plaza lortzen badu, zuzenean gainontzeko anaia-arrebek partehartzaile zerrendaren barne egongo dira.
- **ERREKLAMAZIOAK** Goñi Portalen egin beharko dira Ekainaren 3ra arte.
- Onartuen **behin-behineko zerrenda** Goñi Portaleko iragarpen tabloian izango duzue ikusgai, baita Udaletxeko web orrian (plentzia.net) **2011ko Maiatzaren 5etik aurrera**. **Ez da plazei buruzko informazioa telefonoz emango.**



# UDA LUDOTEKA 2011

## **IZEN EMATEAK ETA MATRIKULAZIO PROSEZUA:**

- Onartuek **inskribapena** burutu beharko dute **2011ko Maiatzaren 9tik 20ra** Goñi Portalen. Honetarako egin behar izango dute:
  - **Zenbateko zehatza ordaindu** Maiatzaren 20<sup>a</sup> baino lehen. Ordainketa, hurrengo **bankuan** eta **kontu korrontean** egin beharko da:
  - **BBK- 2095 -0279- 60-9109388804**
  - **Bankuko ordainketa agiria** Goñi Portaleko bulegoan entregatu. Bankuko ordainketa agiria ekarri arte ez da inor inskribatuta egongo. Agiri honetan **partehartzailearen izen abizenak** agertu beharko dira.
  - Partehartzailearen segurantza **sozialeko txartelaren fotokopia** entregatu.
  - Emandako epean inskribapena formaldu ez duten guztiek, itxaron zerrendaren azken postura pasatuko dira.
- Izen ematearen prezioa, hainbat ekintza, irteera eta txango barne dituela, honakoa da:
  - **55€ pertsona eta hilabeteko Plentzian erroldatuentzat.**
  - **75€ pertsona eta hilabeteko Plentzian ez-erroldatuentzat.**
- Onartuen **behin-betiko zerrenda** Goñi Portaleko iragarpen tabloian eta Udaletxeko web orrian (plentzia.net) izango duzue ikusgai **2011ko Ekainaren 1etik aurrera**.
- Plaza lortu dutenek baina programan parte hartzeari **uko egin** nahi dietenek, Ludotekako arduradunekin kontaktuan jarri beharko dira behin-betiko inskribapen epearen barne, 2011ko Maiatzaren 9tik 20ra, umea **bajan emateko**, eta ukapen hau formaltzeko. **Gogoratu** hau ez egitekotan, beste ume bat plazarik gabe geratzen dela.
- **Izen emateagatik ordaindutako tasa ez da itzuliko** ezinbesteko arrazoiak tartean ez badira (gaixotasuna, ebakuntza, istripua), halako kasuak dokumentu bitartez frogatu beharko direlarik. Tasa horren itzulketa tramitatzeko Goñi Portaleko bulegoan aurkeztu beharko duzue eskabidea, dagokion mediku-frogagiria erantsiz.
- Inskribapen bat egiteak, araudi hau onartzea suposatuko du.
- Plazak mugatuak dira.

## **ARDURA:**

- Plentziako Ludotekako koordinatzaile eta monitoreek programaren funtzionamendu egokia zainduko dute.
- Umeen portaerak eta asistentziak lan taldearen segimendua izango du, eta behar izanez gero, beharrezkoak lirateken neurriak hartuko lituzke funtzionamendu egokia eta elkarbizitza bermatzeko.
- Lan taldeak, partehartzailearen batek euskara modu egokian menperatzen ez duela somatuko balu, ebaluazio bat tartean, partehartzailea bajan emango litzateke eta ez litzaioke inskripzioaren dirua bueltatuko.

## **PROGRAMA OROKORRA: UDA LUDOTEKA 2011ko partehartzaileek hurrengo ekintzetan hartu izango dute parte:**

- SORMEN TAILERRAK, ANTZERKIA, BERZIKLAIA, MARRAZKETA, KERAMIKA, ESKULANAK...
- JOLASAK ETA KIROLAK KALEAN
- TXANGOAK, IRTEERAK ETA EKINTZA BEREZIAK



# UDA LUDOTEKA 2011

**EGUTEGIA:** Ekintza 2011eko Uztaila eta Abuztuan zehar burutuko da. Ordutegia, **10:30etatik 13:30ak arte** izango da astelehenetik ostiralera. PUNTUALITATEA ERREGUTZEN DA.

Ordutegian edota programan aldaketarik balego, Goñi Portaleko lan taldeak aldeztu aurretik abisatuko luke.

## **EKINTZA BEREZIETAKO EGUTEGIA ETA JAI EGUNAK:**

UZTAILA 2011				
4 JAI EGUNA	5 PROGRAMAREN HASIERA	6	7 KUADRIZIKLOak ESKALADA, ARKU JAURTIKETA TROKArekin	8
11	12	13	14 KAYAK eta BODY BOARD CABO BILLANOrekin	15
18	19 SOPUERTA ABENTURA	20	21	22 JAI EGUNA
25 JAI EGUNA	26	27	28	29 AGUR JAIA

ABUZTUA 2011				
1 PROGRAMA- REN HASIERA	2	3	4 KUADRIZIKLOak ESKALADA, ARKU JAURTIKETA TROKArekin	5
8	9	10	11	12 KAYAK eta BODY BOARD CABO BILLANOrekin
15 JAI EGUNA	16	17 NESTLE FABRIKA ETA GARAIO	18	19
22	23	24	25	26 AGUR JAIA



# UDA LUDOTEKA 2011

UDA LUDOTEKA 2011 GOGORATZEKO DATAK	
AURRE INSKRIPZIOAK	MARTXOAREN 28tik APIRILAREN 5era arte GOÑI PORTALen
PLAZEN ZOZKETA	MAIATZAREN 2an 18:00etan GOÑI PORTALen
BEHIN-BEHINEKO ONARTUEN ZERRENDAREN ARGITARAPENA (ZOZKETAN PLAZA LORTU DUTENAK)	MAIATZAREN 5ean GOÑI PORTALen eta Udaletxeko web orrian ( <a href="http://plentzia.net">plentzia.net</a> ) ( <a href="http://plentzia.org">plentzia.org</a> )
MATRÍKULA FORMALTZEA (BAKARRIK ONARTUENTZAT)	MAIATZAREN 9tik 20ra, GOÑI PORTALen
ONARTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN ARGITARAPENA (MATRIKULA FORMALDU DUTENAK BAKARRIK)	EKAINAREN 1etik AURRERA GOÑI PORTALen eta Udaletxeko web orrian ( <a href="http://plentzia.net">plentzia.net</a> ) ( <a href="http://plentzia.org">plentzia.org</a> )